



# UDAL HAUTESKUNDEAK 2023



## Laudioko emaitzek eta boto galerak lainotu dute EAJren garaipena Aiaraaldean

EAJk alkatetza gehiago izango ditu hurrengo legealdian Aiaraaldean; baina, Laudion EH Bilduk ezustea eman izanak eta boza gutxiago jasotzeak ilundu dute jeltzaleen garaipena.

Arakaldon izan ezik, alkate guztiak izango dira EAJkoak edo EH Bildukoak. Alderdi independenteen bilakaera oso ezberdina izan da eta PPK ez du zinegotzirik izango.

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

EAJk sendotu du, nolabait, bere hegemonia politikoa eskualdean, bere esku zeuden alkatetzak ez ezik, Urduñakoa eta Orozkokoa ere izango baititu. Hala ere, bi puntu beltz utzi ditu bere garaipenak.

Alde batetik, mila bozka baino gehiago galdu ditu bidean eta horrek isla izan du, adibidez, Aiara gehiengo osoaren galeran -Aiara Batuzen alde-. Bestetik, bere kudeaketaren ikur izan den Laudioko zerrenda ez da aukera bozkatuena izan alde txikiagatik, EH Bilduren mesederako, eta hori ezustekoa izan da. Are gehiago, aintzat hartuta EITB Focusen inkestak irabazletzat iragarri osten.

Edonola ere, Aiaraaldeko herri populatuenean alkategai bozka-

tuena ez izatea -akordio bidez oraindik alkatetza eskuratu dezake oraindik Ander Añibarrok eta hor dago Omniaren garrantzia-, ez du esan nahi mugarririk jarri ez zuenik atzo. Esaterako, Okondon gehiengo absolutua eskuratu du EAJk. Halaber, duela lau urteko bozka kopuru berarekin, Iker Santocildes jeltzalea izango da Urduñako alkate berria. Orozkon ere gehiengo absolutua bereganatu du EAJk, ADIEren tokia guztiz hartuta. Amurrioren Txerra Molinuevok eutsi dio aginte makilari eta ez du arazorik izango gobernatzeko PSE-EEren babesarekin.


### EH Bilduk gora, baina Urduña galduta

EH Bilduk ezustea atsegin izan zuen Laudion eta 29 botoko aldearekin izan da zerrenda bozkatuena. Arrankudiaga-Zollon

eta Artziniegan, gainera, alkatetzak mantenduko ditu eta oposizioarekin handitu du alde.

Dena den, dena ez da izan positiboa koalizioarentzat. Urduñako alkatetza galdu du hamabi urtez gobernatu eta gero eta Aiara zein Okondon hirugarren indar gisa egongo da udalbatzan. Okondon ez da egoera guztiz berria, baina zinegotzi bat gutxiagorekin egingo dute.

Bi indar hauek sendotzearekin batera, PP erabat desagertu da mapa politikotik eta ez du zinegotzi bakar bat ere izango, Artziniegakoa galduta. Alderdi independenteen egoera ere aldatkorra izan da; Arakaldo Taldeak alkatetza izango du, baina beste batzuek ez dute zinegotzirik izango edo boto gutxiago jaso dituzte.



# Orozko

## Aitor Iza izango da Orozkoko alkate berria, gehiengo osoa eskuratuta

Testua  
Gartzen Garaio Atxurra

### IRABAZLEAREN HITZAK



**Aitor Iza**  
EAJ

*“Lau urterako plana marraztea izango da gure lehentasuna”*

Aitor Iza (EAJ) izango da Orozkoko alkate berria, gehiengo osoa eskuratuta.


EAJ izan da zerrenda bozkatue- na Orozkon, 2023ko udal hautes- kundeetan, guztira 669 boto jaso dituzte jeltzaleek. Bigarren inda- rra EH Bildu izan da; Samuel Pa- sandin zerrendaburu izan duen taldeak 477 boto eskuratu ditu. Podemos alderdiak, aldiz, 90 boto eskuratu ditu, baina ez du orde- karitzarik lortu udalbatzan. Az- kenik PSE-EE alderdiak 17 esku- ratu ditu, eta PPK 8.

Azken hiru legegintaldietan udala gobernatu duen ADIE tal- dearen desagerpenaren ondo- rioz, EAJk alkatetza berreskuratu du Orozkon. EAJk gehiengo abslo- tua izango du udalbatzan, guzti- ra 7 zinegotzi eskuratuta. EH Bil- duk, aldiz, 4 ordezkari izango ditu.

### UDALBATZA BERRIA


1. Aitor Iza (EAJ)
2. Izaskun Gaztelu (EAJ)
3. Estanis Etxebarria (EAJ)
4. Zalao Ramos (EAJ)
5. Asier Azkoaga (EAJ)
6. Aingeru Olaguenaga (EAJ)
7. Jose Lopez (EAJ)
8. Samu Pasandin (EH BILDU)
9. Aitziber Santamaria (EH BILDU)
10. Iosu Zaldibar (EH BILDU)
11. Laura Lopez (EH BILDU)

2019



● Adie Talde Independentea ● EAJ-PNV ● EH Bildu

2023



● EAJ-PNV ● EH Bildu

# ESKERRIK ASKO!

## Maite duzu Aiaraldea

### ehbildu



# Aiara

## Gentza Alamillo izan da alkaterik bozkatuena Aiaran

Testua  
Aimar Gutierrez Bidarte

EAJ izan da zerrenda bozkatuena Aiaran udal hauteskundeetan. 2.316 lagunek osatzen zuten errolda, eta 1.538k hartu dute parte deialdian (abstentzioa, beraz, %33,59koa izan da). EAJk eskuratu ditu boto gehienak (%43,94); baina, Aiara Batuz izan da bigarren indarra (%24,23 botorekin), 4 botoko aldea aterata EH Bilduri (%23,97). Zerbaitara ekarrita, EAJk 660 boto lortu ditu, Aiara Batuzek 364, EH Bilduk 360, PPK 59 eta PSE-EEK 34. Zinegotzi kopuruari so, beraz, jeltzaleek 5 ordezkari izango dituzte Aiara udalean, eta Aiara Batuzek zein EH Bilduk hiruna. Ondorioz, gehiengo absolutua lortzeko negoziaketak izango dira datozen asteetan giltzarri. Gentza Alamillok positibotzat baloratu du aiararren gehiengoak EAJrengan jartzea konfidantza berriro.

### UDALBATZA BERRIA

1. Gentza Alamillo (EAJ)
2. Iñigo Pinedo (EAJ)
3. Montse Angulo (EAJ)
4. Itxaso Gorbeña (EAJ)
5. Unai Campo (EAJ)
6. Iratxe Parro (A.BATUZ)
7. Izaskun Garcia (A.BATUZ)
8. Irantzu Apodaca (A.BATUZ)
9. Pruden Otegui (EH BILDU)
10. Karmele Poblacion (EH BILDU)
11. Iñigo Fraile (EH BILDU)


### IRABAZLEAREN HITZAK




Gentza Alamillo  
EAJ

*“Oso pozik nago Aiarako jende gehienak EAJrengan jarri duelako konfidantza berriro”*

2019



2023



# Okondo

## EAJ izan da zerrenda bozkatuena Okondon, aldea handituta

Testua  
Aimar Gutierrez Bidarte

Jon Escuzaren zerrenda izan da Okondoko bozkatuena. Aurreko hauteskundeetako aldea ere handitu du bigarren eta hirugarren indarrekiko. Parte hartzea % 83,71 izan da eta EAJk botoen %50,13 eskuratu ditu (381). Okondo Aurrerak 219 lortu ditu eta EH Bilduk 140. Azken bi hauek beherakada izan dute botoetan: lehenak 89 bozka gutxiago eskuratu ditu eta bigarrenak 21 gutxiago.

Zinegotzietan dagokienez, bost izango ditu EAJk datozen lau urteetan, hiru Okondo Aurrerak eta bakarrik EH Bilduk. 2019ko udal hauteskundeekin alderatuta, zinegotzi bat gehiago bat gehiago eskuratu du EAJk, EH Bilduren kaltetan. Okondo Aurrerak lehen zituen hirurak mantendu ditu.

### IRABAZLEAREN HITZAK




Jon Escuza  
EAJ

*“Lau urte hauetan egindako lanaren emaitzak dira”*


### UDALBATZA BERRIA

1. Jon Escuza (EAJ)
2. Eneritz Alonso (EAJ)
3. Marisa Urruela (EAJ)
4. Fco. Javier Ramos (EAJ)
5. Josu Arbaiza (EAJ)
6. Sergio Tato (OKONDO AURRERA)
7. M<sup>a</sup> Beatriz Berdugo (OKONDO AURRERA)
8. Jakue Aramburu (OKONDO AURRERA)
9. Joseba Ruiz (EH BILDU)

2019



2023



# Amurrio

## Txerra Molinuevoren zerrenda jeltzalea izanda nagusi Amurrion, botoen %42,12 jasota

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

EAJ izan da zerrenda bozkatuena Amurrion, 2023ko udal hauteskundeetan. Guztira, %65.52 izan da parte hartzea, 7.930 bizilagun baitzeuden deituta herriko bozkaleku ezberdinetara bertaratzerara.

Emaitzei dagokionean, ondorengoak izan dira alderdika lorpenak: EAJk 8 zinegotzi lortu ditu, EH Bilduk 7, PSE-EEk 2. Aldiz, ordezkari gabe geratuko dira Orain Amurrio, PP eta Guk Bai.

### UDALBATZA BERRIA

**1. Txerra Molinuevo**  
(EAJ)

**2. Estibaliz Sasiain**  
(EAJ)

**3. Imanol Llano**  
(EAJ)

**4. Naiara Barallobre**  
(EAJ)

**5. Monika Arbaiza**  
(EAJ)

**6. Ixone Saratxaga**  
(EAJ)

**7. Beñat Busquet**  
(EAJ)

**8. Arantzazu Saratxaga**  
(EAJ)

**9. Jon Berganza**  
(EH BILDU)

**10. Iruñe Iturbe**  
(EH BILDU)

**11. Angela Rico**  
(EH BILDU)

**12. Oihane Rodriguez**  
(EH BILDU)

**13. Mariano Alava**  
(EH BILDU)

**14. Nekane Martinez**  
(EH BILDU)

**15. Roberto Trujillano**  
(EH BILDU)

**16. Laura Fernandez**  
(PSE-EE)

**17. David Romero**  
(PSE-EE)

### IRABAZLEARI ELKARRIZKETA



#### Txerra Molinuevo

EAJ

*“Pozik gaude baina poza neurrikoa da: Amurrion indarra eta zortzigarren zinegotzia mantendu ditugu”*

**TXERRA MOLINUEVO ALAÑA izan da alkategai bozkatuena 2023ko udal hauteskundeetan Amurrion.**

garren zinegotzia ere. Uste dugu helburua bete dugula eta pozik egon gaitezkeela. Bihartik aurrera, lanean jarraituko dugu.

**Nola joan zen atzoko eguna? Nola jaso zenuen emaitza?**

Urduri pasa nuen egun osoa, ez baitakizu inoiz zer gertatuko den. Azkenean, zortzigarren zinegotzia mantentzea lortu dugu, nahiz eta garaipena nahiko estua izan den. EH Bilduk zazpi zinegotzi lortu ditu, eta PSE-EEk bat gehiago lortu du.

Udal osareri dagokionez, antzera geratuko da, baina sozialistek indar gehiago izango dute. Horrez gain,

Orain Amurriok ordezkartza galduko du.

**Gehiengo osoa izatea espero duzue, berriz?**

Datozen asteetan negoziatuko dugu hori, Euskal Herriko emaitzak ikusi ostean. Gaurtik aurrera gauza gehiago baloratu behar ko dira, datuak aztertuta. Duela lau urte PSE-EEekin gehiengo osoa eduki genuen; eta logikoa litzateke jarraitzea. Hala ere, PSE-EE eta EH Bildurekin batukogara, guztiekin, hain zuzen.

Gainontzeko lekuetako emaitzak baloratuta hartuko dugu erabakia.

**Emaitzen zein irakurketa edo balorazio egiten duzue?**

Pozik gaude, baina poza neurrikoa da. Euskadi mailan ez dira emaitza onenak izan gure alderdiarentzat, nahiz eta Amurrion olatuari eutsi diogun: indarra mantendu dugu, baita zortzi-

**Datozen aste edo hilabeteetan zeintzuk izango dira zuen errokkak?**

Udal hauteskundeetan aipatu ditugun proiektuak garatzea. Uste dut kanpaina ona egin dugula, eta amurriotarrek aitortu egin digute hori: merkatu zaharra, trenbidearen obra, eguneko zentroa, aparkalekuak... Dezentze mobilizatu gara, eta Amurrion nabaritu egin da hori. Horregatik pentsatzen dut eutsi diogula, eta talde guztiari eskerrak eman nahi dizkiot.

Era berean, berdintasun eta feminismoaren alde lanean jarraitu nahiko genuke; eta aniztasuna jorratzen. Zaintzari ere heldu diogu.

**Udal bilkuran aldaketak datoz, ordezkarietara dagokionez...**


Bai, hiru alderdi politiko geratuko gara. Alabaina, guk zortzi zinegotzi ditugu, eta EH Bilduk zazpi.

Beraz, indar aldetik pareko gaude. Orain Amurrioren zinegotzia PSE-EEk eramandu, baina hori da aldaketa bakarra. Alderdi txikien desagerpena, eta sozialisten gorakada. Duela 11 urte bezala geratuko gara kasik.


**Amurriotarrei begira, zein mezu nahiko zenuke zabaldu?**

Eskerrak eman nahi dizkiet bozkatu gaituzten guztiei EAJren izenean. Bihartik aurrera lanean jarraituko dugu, gure programa betetzeko.

2019



2023



ALDERDIA	2023 BOZKAK			2019 BOZKAK			DIFERENTZIA		
	BOTOAK	%	ZINEG.	BOTOAK	%	ZINEG.	BOTOAK	%	ZINEG.
EAJ-PNV	2.013	39,47	8	2413	42,12	8	-400	-16,58	▼
EH BILDU	1.847	36,22	7	1.990	34,74	7	-143	-7,19	▼
PSE	501	9,82	2	484	8,45	1	+17	3,51	▲
PODEMOS/EZKER ANITZA/BE				244	4,78	-			
PP	203	3,98	-	242	4,22	-	-39	-16,12	▼
ORAIN AMURRIO	297	5,18	1	118	2,31	-	-179	-60,27	▼
VOX	60	1,05	-	104	2,04	-	+44	73,33	▲
GUK BAI	180	3,14	-						

ZENBAKETAK %100



# EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak Laudion

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Lehia estua izan da azken unera arte, baina azken unean EH Bildu eta EAJren arteko 29 botoko diferentziak azken zinegotzia eman dio Ainize Gastaka buruzuen hautagaitzari, duela lau urte baino bi ordezkarri gehiago. Horrenbestez EH Bilduk lortu du ordezkaritza zabalea Laudio Udalean, zazpi zinegotzirekin. Koalizio abertzalearen zerrendak 3.087 boto lortu ditu, 2019an baino 639 boto gehiago, %24ko iguera.

Bestalde, EAJk 523 boto galdu ditu, 2019ko Udal Hauteskundeekin alderatuta, eta, aurretiaz ai-

patu bezala, zerrenda bozkatue- netik 29 botorera geratu da. Ordez- kari kopuruan ere eragina izan dute emaitza negatiboek; jeltza- leek zinegotzi bat galdu dute eta sei izango dituzte aurrerantzean.

Omniak ere behera egin du boto kopuruan. Guztira 1.365 boto lortu ditu eta 442 hautesle galdu ditu 2019ko emaitzekin alderatuta. Ordezkarri kopuruan, ordea, ez du aldaketarik izango talde independenteak. Azken legealdian bezala hiru zinegotzi izango ditu, sortuko den udal- batza berrian ere.

Ordezkarri publiko bat galdu duena PSE-EE izan da. Talde so-

zialistak, EAJk eta Omniak be- zala, beherakada izan du boto kopuruan. Botoen %9,64 lortu Loli Muriel izango da PSE-EEren zinegotzi bakarra Laudio Udalean datozen lau urtetarako.

### Gehiengo berrien esperoan

Emaitzek aldatu egin dute Laudio Udaleko mapa poli- tikoak, eta koalizio berriak sor- tu beharko dira udal gober- nuak eskuratzeko. PSE-EE- ren beherakadaren ondorioz, Omnia talde municipalistak izango du gehiengo posibleak osagarritzeko giltza; baina ka- pitulu hori ekainean ebartziko da.

## IRABAZLEARI ELKARRIZKETA



### Ainize Gastaka

EH BILDU

*“Hauteskundeetan irabazi dugun aldaketa legealdian borrokatuko dugu orain”*

Lehia estua izan da azken unera arte, baina EH Bildurena izan da zerrendarik bozkatuena Laudion. Zein da egiten duzuen lehenengo balorazioa?

Egia esan ezin dugu besterik esan; oso oso pozik gaudela, oso ilusionatuta eta lan egiteko gogo handiarekin.

**Zazpi zinegotzi lortu dituzue, EAJk baino bat gehiago.**

Azken konfirmazioa jaso arte

ez gara guztiz ziur egongo baina hori dirudi. Oso oso pozik gaude emaitzarekin.


**Balitzko udalbatza horren osaerarekin, nolako egoera aurrerikusten duzu udal gobernu osatzerako orduan?**

Oraindik ez gara sartuko hori baloratzera. Zerrenda horretan hauteskundeak irabazten dituen lehenengo emakumea naiz, gaur asko dugu ospatzeko. Beraz gaur

ospatu eta bihar eseriko gara, benetan hitz egitera, balitzko eszenatokiez. Mundu guztiarekin eseriko gara hitz egitera, eta orduan ikusiko da zer nolako eszenatokiak marratzen diren Laudion.

**Aldaketa beharra aldarrikatuzentuen kanpaina hasieratik, eta horrela gauzatu da. Zer mezu helarazi nahi diezu zuzen konfiantza jarri duten herritarrei?**

Bihotzez mila mila esker herritar guztiei. Hauteskundeetan irabazi dugu aldarrikatzen genuen aldaketa, baina hurrengo legealdian egunero egunero borrokatuko dugu udaletik aldaketa horren alde. Gure hautagaitzarekin herrian sortu den ilusio hori handitzen jarraitzea nahi dugu.



## UDALBATZA BERRIA

- |   |                                       |
|---|---------------------------------------|
| <b>1. Ainize Gastaka</b><br>(EH BILDU)        | <b>10. Eva Marquinez</b><br>(EAJ)     |
| <b>2. Nagore Gomara</b><br>(EH BILDU)         | <b>11. Maite Cortazar</b><br>(EAJ)    |
| <b>3. Estibaliz Gorostiaga</b><br>(EH BILDU)  | <b>12. Joseba Amondo</b><br>(EAJ)     |
| <b>4. Aitor Fdez. de Pinedo</b><br>(EH BILDU) | <b>13. Andoni Orue</b><br>(EAJ)       |
| <b>5. Unai Tejada</b><br>(EH BILDU)           | <b>14. Alvaro Barrios</b><br>(OMNIA)  |
| <b>6. Sonia Respaldiza</b><br>(EH BILDU)      | <b>15. Nerea Gonzalez</b><br>(OMNIA)  |
| <b>7. Iñigo Martinez</b><br>(EH BILDU)        | <b>16. Jakinda Artaraz</b><br>(OMNIA) |
| <b>8. Ander Añibarro</b><br>(EAJ)             | <b>17. Loli Muriel</b><br>(PSE-EE)    |
| <b>9. Ander Larrinaga</b><br>(EAJ)            |                                       |

# Arrandiaga-Zollo

## Arrankudiaga - Zollon EH Bildu garaile

Testua  
Gartzen Garaio Atxurra

EH Bildu izan da zerrenda bozkatuena Arrankudiaga-Zollon, guztira 345 boto jaso ditu Txutxi Ariznabarreta buru duen talde politikoak. EAJ izan da aldiz bigarren zerrenda bozkatuena; Urtzi Vergararen hautagaitzak 234 boto jaso ditu. Alderdi jeltzaleak 77 boto galdu ditu aurreko deialdiaren alderatuta, eta EH Bilduk aldiz, 27 boto irabazi ditu.

Emaitza hauen arabera, EH Bilduk 5 zinegotzi izango ditu udalean, eta EAJk aldiz, 4.

### UDALBATZA BERRIA

1. Txutxi Ariznabarreta  
(EH BILDU)

2. Aritz Leturiaga  
(EH BILDU)

3. Maider Biritxinaga  
(EH BILDU)

4. Axier Barruetabeña  
(EH BILDU)

5. Nerea Zarate  
(EH BILDU)

6. Urtzi Vergara  
(EAJ)

7. Olatz Alamillo  
(EAJ)

8. Bego Idirin  
(EAJ)

9. Bingen Larizgoitia  
(EAJ)


### IRABAZLEAREN HITZAK




Txutxi Ariznabarreta  
EH BILDU

*“Denok maite dugun Arrankudiaga eta Zollo egiten jarraituko dugu”*

2019



2023



# Artziniega

## Zinegotzi bat gehiago gehitu dio EH Bilduk 2019an lortutako gehiengo osoari

Testua  
Aimar Gutierrez Bidarte

EH Bildu izan da zerrenda bozkatuena Artziniegan, 2023ko udal hauteskundeetan. 2019an lortutako gehiengo osoa berretsi eta zinegotzi bat gehiago irabazi du koalizio abertzaleak. Joseba Vivanco izango da, beraz, udalerriko alkatea berriz ere. Vivancok emaitzen "oso balorazio positiboa" egin du. "Lau urtez udal gobernuan egon ostean hauteskunde hauek azterketa bat bezalakoak ziren guretzat. Herriarrek euren konfiantza eman digute berriro ere, 2019ko hauteskundeak nabarmen hobetuz". Botoen %100 zenbatuta, PPK ordezkaritza galdu du Artziniegako Udalean, eta hori ere "garai-pentzat" jo du Vivancok. "40 urteren ostean, PP udaletik bota dugu, eta baita EAJ oposizioan mantentzea lortu ere".


### IRABAZLEAREN HITZAK




Joseba Vivanco  
EH BILDU

*“Herriarrek legealdi honetan egindako lana balioan jarri dute”*

2019



2023



### UDALBATZA BERRIA

1. Joseba Vivanco  
(EH BILDU)

2. Arkaitz San Jose  
(EH BILDU)

3. Miren Lopez  
(EH BILDU)

4. Jon Garcia  
(EH BILDU)

5. Onintza Elvira  
(EH BILDU)

6. Iñaki Cuesta  
(EH BILDU)

7. Encina Castresana  
(EAJ)

8. Eduardo Villanueva  
(EAJ)

9. Jon Yarritu  
(EAJ)



# Urduña

## EAJk alkatetza kendu dio EH Bilduri

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**


EH Bilduk Udalaren buru hiru legealdi jarraian egin eta gero, EAJk eskuratu du hurrengolau urteetarako alkatetza udal hauteskundeetan. Nolanahi ere, lehia estua izan da, 47 botoko aldea egon baita bi alderdien artean.

Iker Santocildes (EAJ) izan da bozka gehien lortu duen alkategaia 2023ko udal hauteskundeetan Urduñan. Eusko Alderdi Jeltzaleak zinegotzi bat kendu dio koalizio abertzaleari: sei eta bost eskuratu dituzte, hurrenez hurren.

Parte-hartzea %70,71 izan da

Urduñan, 2019an baino 4 puntu gutxiago. Botoa ematera deituta zeuden 3.246 urduñarretatik 2.295 gerturatu dira hiriko hautetsontzietara. Guztira, EAJk 1032 bozka eskuratu ditu (%45,88), EH Bilduk 985 (%43,79), URE-Elkarrekin Podemosek 96 (%4,26), PSE-EEK 83 (%3,69) eta PPK 33 (%0,88).

2019ko hauteskundeetan aldean, EAJk bozka bakarra galdu du, EH Bilduk 127, PSE-EEK 77 eta PPK 29. URE-Elkarrekin Podemos ez zen azken udal hauteskundeetara aurkeztu. Boto guztiak zenbatuta, sei zinegotzi lortu ditu EAJk eta bost EH Bilduk. Horrenbestez, indarrak alderantzikatu dituzte Urduñako bi alderdi nagusiek.



### UDALBATZA BERRIA

1. Iker Santocildes (EAJ)
2. Xabier Sobron (EAJ)
3. Uxue Mendibil (EAJ)
4. Irati Ortiz de Pinedo (EAJ)
5. Jon Mirena Ramirez (EAJ)
6. Esti Zulueta (EAJ)
7. Itziar Biguri (EH BILDU)
8. David Gutierrez (EH BILDU)
9. Iratxe Ibañez (EH BILDU)
10. Juanjo Sanz (EH BILDU)
11. Eunáte Molinuevo (EH BILDU)

### IRABAZLEAREN HITZAK



**Iker Santocildes**  
EAJ

“Lan asko egin dugu kanpaina osoan zehar eta azkenean emaitza heldu da”

# Arakaldo

## Arakaldoko Taldeko Sonia Hidalgo izan da alkategai bozkatuena

Arakaldoko Taldeko Sonia Hidalgo izan da alkategai bozkatuena; "Jabi Asurmendik eginiko lanari jarraipena" emateko sortutako taldearen hautagaia.

Testua **Gartzzen Garaio Atxurra**

Arakaldoko Taldea izan da zerrenda bozkatuena Arakaldon, 2023ko udal hauteskundeetan; guztira 38 boto jaso ditu. Bigarren indarra EAJ izan da, 17 botorekin. Guztira, %28,35 izan da abstentzioa, 91 bizilagun bai-

tzeuden deituta herriko bozka-lekura bertaratzera.

Emaitza hauen argitara, Arakaldoko Udalbatza Arakaldoko Taldeko 5 zinegotzik osatuko dute.


### UDALBATZA BERRIA

1. Sonia Hidalgo (Arakaldoko Taldea)
2. Jose Antonio Diaz (Arakaldoko Taldea)
3. Aitor Rodriguez (Arakaldoko Taldea)
4. Anibal Galan (Arakaldoko Taldea)
5. Aitor Cascallana (Arakaldoko Taldea)

### IRABAZLEAREN HITZAK

**Sonia Hidalgo**  
ARAKALDOKO TALDEA

“Herritar guztien artean gauzak erabakitzea eta egitea da garrantzitsuena”





# erreportajea

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak lan bizia eta ezerosoa egin du hauteskunde kanpaina hasi baino lehen, eta baita kanpainen bertan ere, duela lau urte alkategaiek hartutako konpromisoak eta zerrenden euskararen presentzia baloratu baitituzte, bestek beste.

## Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua: euskara agenda politikoan sartzeko ahalegina



2019an alderdi politikoei hartu zuten lekua hartu dute oraingoan Aiaraldeko euskalgintzako eragileek, hautagaiei konpromiso berriak eskatzeko. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak indar handia bideratu du udal hauteskundeetara, tokiko erakundeek ekarpena ezinbestekotzat jotzen baitu euskararen sustapenean. Gauzak horrela, elkarteak saiakera egin du euskara agenda politikoan txertatzeko eta horretarako modu oso kritikoa aritu da ordezkari politikoei, berdin zein kolorekoak izan diren.

Hasteko, apirilaren amaieran alderdi ororen alkategaien eta zerrenden euskararen ezagutza maila puntuatu zituen Kontseiluak eta hurrengo izan zen ondorioa: "Azttertutako alkategaien artean 17 ahobizi, 5 belarriprest eta 10 erdaldun daude. 16 zerrendek gaintitzen dute, 7k ez nahiko erdiesten dute eta 9 ka-

sutan ez da nahikoa informazio erdietsi. Zenbait kasutan alderdiengana jo dugu eta informazioa ukatu digutela azaldu nahi dugu". Horrez gain, gogor kritikatu zuten alderdi batek berak ere ez zehaztea publikoki euren zerrendaburua euskaradunaz edo ez: "Orain arteko aurkezpen publiko guztietan, zein prentsara igorritako oharretan, ez dute adierazi hautagai bakoitza euskara mintzatzeko edo ulertzeko gai den. Informazioa emate hutsak hizkuntzari garrantzia aitortzea bazekarren, eskakizun hau betetzea gardentasun ariketa bat bazen".

### Iraganera begira

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluko hurrengo adierazpena atzera begira egindakoa izan zen. Hain zuzen, taldeak "No, we can't" kanpainaren balorazioa izan zen. Finean, 2019ko

udal hauteskundeetan testuinguruan alkategaiek hainbat konpromiso hartu eta sinatu zituzten hasierako lelo hori "Bai, we can" bilakatzeko.

Maiatzaren 3an Kontseiluak, ordea, asmo horien guztien jarraipena egin eta baloratu zituen. "Ekimenak mahai gainean jarri ditu euskara, udal jarduera, hizkuntza politika eta hizkuntza eskubideak, fokua bertan jarri eta jarraipena egiteko. Zenbait kasutan ekitera ere bultzatu ditu udalak, kontuan hartzen ez ziren alorrak kontuan hartzera, aztertzeraz... Proposamenak trukatu dira eta aurrera-pausoak ere izan dira hartutako konpromisoetatik harago. Udalerrri bakoitza esperientzia ona beste udalerriri jakinarazteko ere balio izan du Jarraipen Mahaiaren jardunak, baita alderdietatik harago elkarlana sustatzeko". Edonola ere, taldearen kritika ez zen al-

derdi edo udal gobernu taldeetara mugatu eta euren jardueraren eraginkortasuna ere kolokan jarri zuten Horregatik "2023-2027 Legegintzaldirako, azken lau urteotako esperientzian oinarrituta, konpromiso sorta berri bat aurkeztuko diegu hautagaiei. Sinetsita baikaude arnas luzeko ekimen honetan eta jakin badakigula borondatea dagoenean; Udaletatik, badagoela oraindik ibiltzeko biderik euskararen normalkuntza bultzatu eta hizkuntz eskubideak gure udalerrietan bermatzeko."

### Konpromiso berriak

Behin konpromiso berriak zein aurrekoak dokumentu berrian jasota, Euskalgintza Kontseilua harremanetan jarri zen berriro duela lau urte argiria sinatu zuten alderdiekin eta kanpainen bertan plazaratu zituz-

ten biraren emaitzak: EH Bilduk, Elkarrekin Podemos, Orain Amurriok eta Okondo Aurrierak berretsi zuten sinaketa. Hau da, EAJk eta Omniak uko egin zioten dokumentu berriari atxikimendua emateari. Zentzu horretan, eskualdeko jeltzaileek bilera egin zuten euskarari buruz eztabaidatzeko eta agerraldi propioa egin zuten euren ikuspegia azaltzeko.

Omniak, Laudioko alkategaien eztabaidan aipatutakoaren arabera, "euskara politizatze saiakeratzat" jo zuen egitasmoa.

### Azken txanpa

Amaitzeko, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak ez du utzi aukera pasatzen eta alderdi ororen propagandaren irakurketa kritikoa, euskararen euren argitalpenetan izan duen presentzia aztertuta.